

[**b**]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

530. zkia.

XIII. urtea

2005eko maiatzaren 20a

Musikaldia VII

Musika egun arrakastatsua Elgoibarren



Makina
Erremintaren
Institutua

Instituto de
Máquina
Herramienta

INFORMAZIOA:

Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa, 1 - 20870 Elgoibar

Tel.: 943 74 82 65 - 74 41 32

Faxa: 943 74 41 53

eposta: amaia@imh.es

www.imh.es



Izena emateko epea:

2005-2006 IKASTURTEA

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A - D ereduak)

- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Mekanizazio Bidezko Produktzioa
- Industri Ekipoen Mantenimendua

ERDI MAILA (A - D ereduak)

- Mekanizazioa
- Makineria eta Linea Eroanbideen Instalazioa eta Mantenimendu Elektro-Mekanikoa

ATE IREKIAK:

maiatzaren 26an eta ekainaren 2an,
arratsaldeko 18:00etan



Ekainaren 1etik 8ra, biak barne



EIBAR

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Administrazio eta Finantzak (EGUNEZ eta GAUEZ)
- ◆ Nazioarteko Merkataritza
- ◆ Gorputz eta Kirol-ekintzen Sustatzea

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Administrazio Kudeaketa
- ◆ Merkataritza

Otaola Hiribidea, 29 - 20600 EIBAR

Tel. 943 20 84 44 / Faxa. 943 20 31 96

E-maila. uni@iesunibhi.com

www.iesunibhi.com

ERMUA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Telekomunikabide eta Informatika-Sistemak
- ◆ Informatika Aplikazioen Garapena
- ◆ Informatika Sistemen Administrazioa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Informatika Sistemen Ustiapena

Ongarai Auzoa - 48260 ERMUA

Tel. 943 17 62 57 / Faxa. 943 17 64 50

E-maila. uni@iesunibhi.com

www.iesunibhi.com

Aurrematrikula: ekainaren 1etik 8ra



IMANOL LARRAÑAGA

Uxue, norbait maitatzea eta maiteminduta egotea diferenteak direla irakurri berri diot Pako Aristiri bere azken liburuan. Maitasuna barruan sortzen den bitartean, maitemina kanpotik datorren sentimendua dela dio. Maitasuna indartsua ikusten du, baina maitemina ahula begitantzen zaio. Bere esanetan, maitasuna maitearekin egotea da; maitemina, berriz, maitearekin zerbit egitea. Maitasuna amaitzean tristura bat geratzen omen da barruan; maitemina amaitzean hutsune bat, erraz bete daitekeen hutsune bat. Maitasuna amaitzen denean "Orain zeinentzako bizi?" galderak inguratzen gaitu; maitemina itzaltzerakoan, ordea, "Hil egin nahi dut!" izaten da lehen erreakzioa.

Zer, Uxue, hasi al zara zurea maitasuna ala maitemina den begira? Maiteminaren urduritasuna ala maitasunaren tenplea nagusitzen da zure baitan? Jeje, lasai, neuk ere horretan jardun nuen liburua *mesilla* gainean laga eta argia emendatu nuenean. Baina, konturatu orduko, nekearen zulora jausi eta loak hartu ninduen berarekin. Maitasunaren igurtziak jasotzen dituen maiteminarekin amets egin nuen gau hartan. Maiteminaren suak berotzen duen maitasunarekin.

ZOZOAK BELEARI...



UXUE ALBERDI

Amo tanto, tanto la vida, que de ti me enamoré...

Egañak ere bazioen: *batzuek asko maitatzen dute, beste batzuek askotan.* Nik, asko eta askotan.

Maitemina ahula dela dio Aristik, eta bai, zeharo da ahula. Hainbeste, ze zentzuduna zorutzen baitu, alperra mendizaletzen, jeltzaleak *zipayo!* oihukatzeraz eramaten, harroa erreguka jartzen. Egia, maitasuna egotea da; maitemina, aritzea. Maitemina da, erlojuari so, trenaren zain gauden unea. Maitasuna trenean eserita goazena da, lasai, geltoki ezagun horretara bidean. Maitemina ostirala da; maitasuna, igandea. Maitasuna mundua da, maitemina energia. Ez da desagertzen: izena aldatzen zaio. Zenbat aldiz maitemindu ote naiz izen ezberdineko mutil berberarekin? Eta bai: maitemindua da *hil egin nahi dut!* oihukatzen duena: bizirik dagoen seinale! *Orain zeinentzat bizi?* dioena aspaldi hil zen, inorentzat bizi dena hilda baizik ezin baitaiteke egon.

Eta niri buruz galdetzen didazu. Ikusi al nauzu inoiz kalean baldosa bera bi aldiz zapaltzen?

Ez ekibokatu: itsuki sinesten dut maitasunean, baina zera argi dut: maiteminetik bakarrik jende gutxi bizi daiteke. Maitasunetik bakarrik, landareak eta perikitoak.

«Hasi al zara zurea maitasuna ala maitemina den begira?»

IMANOL

«Maitemina ostirala da; maitasuna, igandea»

UXUE



MAITE DEN GAUZAN, EDO EZ DA NEKERIK,
EDO MAITE DA NEKEA ERE



Esara Zaharra

Morkaiko Mendizale Elkartearen esker ematea

Morkaiko Mendizale Elkartek Elgoibarko Mendi Itzulia antolatzen lagundu zuten guztiei eskerrak helarazi nahi dizkie: Eroski, Netto, Xigortze eta Idarraga Kafeak, Bollar eta Pilar frutategiak, Nava inprimategia, Lanbroa eta Dorita.

Harategiak: Armueta, Patxi, Iraola, Sahatzu, Ziarda, Landa eta Fraile.

Konporta, Karakate eta San Migeleko Elkartea, Iñaki Beristain, Balentin Txurruka eta Jaime Martinez. Julio Bueno, Beristain eta Ibartxiki ardoak. Havez gain, Euba Txiki, Irunabe, Irunaberri, Otxortia eta Mendaroko Agarre baserriak eta Udaleko brigada. Parte hartzaile guztiei ere luzatu nahi genieke gure esker ona eta inor ahaztu bazaigu baita hari ere. Mila esker guztioi eta hurrengo urtean elkar ikusiko dugulakoan, agur bero bat.

MORKAIKO MENDIZALE ELKARTEA

BARRENe zuzendaritzari:

Idatzi honen bidez, Musikaldiaren antolaketan parte hartu genuenok, BARRENe ekitaldi honi emandako trataerarekin gure desadostasuna adierazi nahi dugu.

Horrelako ekintzarik ez da inoiz gehiago herrian ospatuko, eta hala ere astekariak ez zion eman merezi zuen protagonismoa eta aipatu besterik ez zuen egin.

IRAKASLEAK, ZUZENDARIAK ETA HAINBAT GURASO

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENe edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derigorrezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gaztelera datorren eskutitz argitaratuko.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENe ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jarzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jasone Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MARKETZAILA Jaione Uhanue KOLABORATZAILAK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Gorastiza, Amaia Gorroategi, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurrutxaga, Iban Urizar, Kokoe KE, Umuzuno, Unai Villena, Alaitz Vives ESAERA ZAHARRA Gatzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Getxo Koop. E. TIRADA 4.300 ale LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

KEXAK



• Herritar batek esan digunez, **Ikastola atzeko zelaian belarrak oso luze daude, eta gainera zikinkeriaz beteta dago:** “Gabriel Krutzelegi kaleko etxe berrien atzeko aldea erabat ahaztuta dago. Ez dakit noren ardura den ingurune hori, baina ez du inork zaintzen. Belarrak oso luze daude, eta gainera dena zikinkeriaz beteta dago. Ikastolako irakasleak bertara joateko ohitura daukate, ume txikiekin pasiatzera, eta benetan, ez da batere erakargarria. Mesedez, dagokionak txukundu dezala.”



TXALOAK

• Guraso batek **Parrokiako Aisialdi Taldea txalotu nahi du antolatzen dituzten jolas, merendola eta irteerengatik:** “umeak oso gustura bueltatzen dira ekitaldi guztietatik, oso ondo pasatzen dute bertan. Animo eta jarraitu horrela!”

• Herritar batek **Udala txalotu nahi du herriko lorategiak oso politak jarri dituztelako:** “Udaberria iritsi da, eta Udalak herriko lorategi guztiak apaindu ditu, eta belarra moztu dute. Lore politak jarri dituzte, eta herriak beste itxura bat dauka.”



• Herritar batek esan digunez, **Musikaldia antolatu zutenek Artetxe auzoa baztertuta utzi zuten:** “Herri osoan zehar gune desberdinak jarri ziren, baina Artetxen ez zen ezer egon. Sigman jarri zuten moduan, Artetxen ere zerbait jarri zitekeela uste dut. Muguruzako eskoletan eszenatokia jartzeko lekua badago, eserita egoteko parke egoki bat ere bai eta tabernak ere badaude. Herrian zerbait antolatzen denean, Madalatik gora ez da ezer jartzen, inork ez du gure auzoa kontuan hartzen.”



Aital honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



Tel: 943 74 10 11

- 🚗 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- 🚗 ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- 🚗 IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Batoz informazio eske!



URRUZUNIOREN Luma

Enperadorea eta alkatea

Hans Christian Andersen idazleak "Enperadorearen jantzi berria" izeneko ipuina idatzi zuen. Ipuin horretan, pikaro batzuek enperadoreari jantzirik dotoreena jantzita daukala sinestarazten diote, berez biluzik dagoenean. Azkenean, haur bat, bere inozentzia guztiarekin, ausartuko da esatera enperadoreari ez daramala soinean jantzirik, larrugorritan dagoela, alegia. Nik uste dut gure herriko alkateak oker dabilela esango dion "haurra" falta duela. Izan ere, autoritarismoa ez da sekula agintzeko era ona izan. Herritarrei kasu egin gabe, jarrera bat itsu-itsuan mantentzea zentzugabea da. Aldiz, beti ez direla erabaki zuzenak hartzen onartzea garaipen bat da. Espero dezagun, berandu baino lehen, alkateak pertsona hori topatzea eta haren esana aintzat hartzea. Herri guztiaren onerako izango da.

Jon Eugi

komikia



Kokoe 018



BAI ESAN?

BLANKA
SALEGI

KULTUR TEKNIKARIA

Asteburuan, maiatzak 21 eta 22, Trinitate jaiak ospatuko dira Elgoibarren. Urtez urte, geroz eta ekitaldi gehiago antolatzen ditu Udalak eta horren inguruan egin dugu berba Blanka Salegirekin.

• Zenbat ekitaldi daude aurten Trinitate jaietan?

Larunbatean, Trinitateko IV. Azoka Bereziarekin hasiko dira. Egia esan, ia urtero gauza antzekoak errepikatzen dira baina aurten nobedade bat dago ze Idi Probak egingo dira asaldiko partez. Gero, Garek antolatuta, Elgoibarko 24 orduko XII. Irrati jardunaldiak egingo dira Karakate menditik, Musika eskolako ikasleen jaialdia, erraldi eta buruhandiak, Itxaropnea abesbatzaren kontzertua, Nagusien eta Haurren tanborrada eta, nola ez, Trinitate Egunean egiten den Artisau zoka, aurten X. edizioa du. Jaietako bukaera emateko Laja taldeak girotuko du plaza.

• Trinitateak San Bartolome jaiak baino estima gutxiago al dute?

Nik ezetz esango nuke, ze bi egunetan makina bat ekitaldi antolatzen dira eta herritar asko hartzen du parte eta beste herritar asko inguratzen da giroaz gozatzerako. Udaberriko jaiak dira, neguko egun motz eta grisaren ostean, herriira iristen diren estreinako festak.

[AKORDATZEN NAIZ]



JAVIER ARRIOLA

1940an jaioa

«Txirrindularixak Altzolan»

Praktikau ez det ezer egin, baiña kirol zalia izan naiz. Txirrindularitza asko gustau izan jata, eta pelotia.

Lehen egitten zan bakarrik *Bizikleta Eibarresa, Pais Vasco* ez zan egitten. Horra etortzen ziran onenak, eta horrek danak Altzolan "aterizatzen" zeбен.

Altzolan zauden hemen inguruko hotelik onenak. Nik ezagutuko nittun zazpi ekipo bertan geratzen ziranak. Elgoibar dana juten zan iluntzetan Altzolara. Orduan etapa danak Eibarren amaitzen ziran, eta gero, beti Altzolara. Han ezagutu nittun Fausto Coppi -entzueria izango dezu, ezta-, Bahamontes, Loroño, Voguet, Miguel Poblet... munduan izan diran txirrindularirik onenak: danak handik pasauko ziran. Ixa nahi be ere, danak ezagutu.

Altzolan lan egitten naban taller txikitik ere txirrindulari asko pasatzen zan. Orduan ez ziran bizikletak oin diran bezelakuak: bizikletia hartzen dezu, eta eskuekin dana montatzen dezu. Orduan *a base de tornillos*, burdiña eta Allen llabiarekin lotuta. Tornilluak igual burua korriuta ero

llabian ibilli eta soltau ezin izaten bazaben, tallerra etortzen ziran, guk zulu edo zeozer egitteko.

Gure ugazaba oso afizionaua zan, eta Hotel Albizua zaneke ugazaba ere bera zan. Han egoten ziran txirrindularixak. Baitta Hotel Altzolan, Hotel Larrañagan, Hotel Zelaian... egoten ziran. Ugazabaren bittartez, txirrindulari asko pasatzen zan. Berak gustora hartzen zittun, eta ni izaten nitzan txapuzak egitten zittuna. Txirrindulari askorekin musian ere egin naban.

Nik Altzolan ezagutu nittun baiñuetxia, Hotel Larrañaga, Hotel Alzola, Hotel Albizua eta beste hiru-lau pensio.

Orduan nik Altzolan txoferrak uniformata etortzen ezagutu naban. Hemen ikusten ziran kotxiak! Baiñuetxera etortzen ziran madrileñuak txoferrakin, bere gorro eta guzti.

Lehenago eta gaurko txirrindularitzak konparaziorik ere ez. *Subida Arrate* 18 urtian urterik fallau be ikusten egon nitzan. Bahamontes ikusi naban hiru bider illaran irabazten.

[GURE BERBAK]

Esamolde batzuk (4)

Aurrekuetan bezela, gaurkuan ere esaera batzuk osatu bihar ditzuzue. Amaittu egizuz goiko multzoko esaera-hasierak beheko multzokuekin. Ebazpenak, azpizan. Azalpenak, hurrengo batian.

- 1 - Hamaika holako ...
- 2 - Hasarratzen danak ...
- 3 - Ez izan eta bai uste, ...
- 4 - Bikote horrek umia eduki dau: ...
- 5 - Txakurrak hankautsik...
- 6 - Udaberriko loria, ...
- 7 - Bi lagun horrek ...
- 8 - Aldaparik gabeko...
- 9 - Erosittako prezian ...
- 10 - Berua(re)na ...

- ... kukuaren markia ondu dau. - A
 ... han ere! - B
 ... ikusteko jaixuak gara! - C
 ... laurik ez dago. - D
 ... bi lan daukaz. - E
 ... kendu egixok hire kontakizunari. - F
 ... uztaixan juateko modukuak dittuk. - G
 ... "mierda pa usté"! - H
 ... urria baiño hobia. - I
 ... saldu dixat albistia. - J

Jesus Mari Makazaga

I-C-2-E-3-H-4-A-5-B-6-I-7-G-8-D-9-J-10-F
EBAZPENAK:

ELENA
 ileapaindegia
 Depilazio Elektrikoa
 San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
 Domingo Arrizabalaga
 SALEROSKETA
 BASOEN MOZKETA
 Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

MUSIKALDIA VII

ELGOIBAR PENTAGRAMA BIHURTUA

Maiatzaren 14an Musikaldia VII ospatu zen. Elgoibarrek ia bikoiztu egin zuen bere biztanlegoa, musikarien eta bisitarien artean 6.000 pertsona inguratu ziren gure artera. Berehala hasi ziren estreinako doinuak: txistulariak, Mauxitxa txaranga, akordeoiak, alboka... Denetik entzun eta ikusi ahal izan zen. Inoiz ez bezala, herriko kaleak soineko bereziz jantzita zeuden, 9 eskenatoki txoko ezberdinetan banatuta, eta egun osoko ekitaldiak. Musikaz gozatzeko aukera paregabea. Musikaldia VIII Erandion izango da, ea lortzen duten Elgoibarrek erakutsitako mailari eustea.





[PROTAGONISTA]



EgoitzMora

Egoitz Mora Judoka elgoibartarrak zilarrezko domina lortu du Lisboako Irekian. Egoitzek 90 kilotik beherakoen kategorian hartu zuen parte Euskadiko Selekzioa ordezkatzuz. Finalera iritsi aurretik bost borrokalari portugaldarren kontra neurtu zituen indarrak. Azken borrokaldian Portugaleko Txapelduna izan zuen aurrez-aurre. Egoitz ez zen kokildu eta aurre egin zion hasieratik. Oso berdindua egon zen norgehiagoka, baina azkenean portugaldarrak irabazi zuen eta Egoitz bigarren postuan gelditu zen zilarrezko domina eskuratuz.

[NOTIZIA]

Bernardo Ecenarro enpresan lehegailu bat jarri zuten larunbat gauean

Larunbat gaueko 4:00ak aldera, lehegailu batek egin zuen eztanda Lerun Industrieguneko Bernardo Ecenarro enpresan. Lehegailuak enpresako hometan eta lehoietan eragin zituen kalteak, baina ez zen inor minduta suertatu. Honekin batera, Bergarako, Sorluzeko eta Beasaingo hiru enpresatan ere jarri zituzten lehegailuak. HERRIZAINGO Sailak atentatu havek ETAk egin dituelako hipotesiari eusten dio.



eta babes osoa adierazi nahi diete. Elgoibarko Udaletxeko talde politiko guztiak bat datoz biolentzia, txantaia eta belduraztearen bideek Euskal Herriaren garapena eragozten dutela esatean, eta kale borroka eta terrorismoa babesten dutenei, ekintza horiek bertan behera utzi ditzaten eskatzen diete.

Udalaren gaitzeppen mezua

Elgoibarko Udaletxea ordezkaten duten talde politiko guztiak gaitzesten dute herriko enpresak jasan duen atentatua. Honela, enpresaren arduradunei nahiz langileei elkartasun

[ZENBAKIA]

27

Euskal Herri osoatik etorritako 27 artisau desberdinek jarriko dute beren postua Trinitateetako 10. Artisan Ferian. Asteburu honetan ospatuko dira Trinitate jaiek Elgoibarren, eta ekitaldi garrantzitsuenen artean kokatzen da Artisan Azoka. Guzti hauetatik 8 artisau elgoibartarrak izango dira.

asteko [ARGAZKIA]



Mintxeta Atletismo Taldea Etiopiaraino iritsi da! Elgoibarko Klubak kamiseta elastikoak bidali zituen Afrika aldera Gerardo Prieto korrikalarien managerraren bitartez, eta orain bertako korrikalariak entrenamenduetarako erabiltzen dituzte Elgoibarko taldearen elastikoak. Etiopiako korrikalariak izen handia eman diote Elgoibarko Mugerza Krosari, eta beharbada etorkizunean Mintxeta Atletismo Taldearen kamisetekin korrika hasi zen norbaitek irabaziko du gure nazioarteko krosa.

Bidezko Merkataritzaren postuko produktu guztiak saldu ziren zapatuan



Joan zen larunbatean, maiatzaren 14an, Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna ospatu zen, eta Parrokiako Misio Taldeak salmenta postu bat jari zuen King-Kong azpian. Goizean goiz hasi, eta eguerdira aldera arte egon ziren kafea, kakaoa, gailetak... saltzen. Hasieratik hurbildu zen jendea, eta eguerdirako dena saldu zuten, postua hutsik gelditu zen. Antolatzaileak pozik zeuden benetan.

Zer da Bidezko Merkataritza?

Betiko merkataritzaren aurrean eskaintzen den irtenbidea da Bidezko

Merkataritza. Irizpide ekonomikoak baino, balore etikoak dira nagusi. Bidezko Merkataritzaren bitartez soldata duin bat bermatzen da, erabakiak demokratikoki hartzen dira eta ez da haur esplotaziorik ematen. Errespetuan oinarritzen den harreman komertziala da, bitartekariak ez dira aberasten, eta salneurria erosle eta saltzaileen artean adosten da.

Bidezko Merkataritzaren helburu nagusia arduraz kontsumitzea da. Kalitatezko produktuak dira, eta hauek erosiz herri txiroenen garapen soziala bultzatzen da osasun arloan, azpiegituran, hezkuntzan eta lanean.

[MOTZ-MOTZIAN]

Atxutxiamaikarekin udarako planak

Atxutxiamaika Aisialdi Taldea hasi da dagoeneko udarako planak antolatzen. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoentzat Udaleku irekiak izango dira goizez, ekainaren 27tik uztailaren 22ra. Hemen izena emateko ez dago plaza mugarik. Bestalde, LH 3, 4, 5 eta 6. mailakoentzat Askisu aterpetxera irteerak antolatu dituzte. Izena emateko epea maiatzaren 31n bukatuko da. Plazak mugatuak dira eta izena emateko ordena errespetatuko da.. 943 74 16 26 (Aiora) telefonoan lortu dezakete informazio gehiago.

Arantzazura erromesaldia maiatzaren 29an

San Bartolome Parrokiak Arantzazuko erromesaldia joateko irteera antolatu du. Maiatzaren 29an, domekan, izango da. Joan nahi duten guztiek Muruamendiaraz gozotegian eskura dezakete txartela (bazkaria eta bidaiak 30 euro). Goizeko 9:30ean aterako dira Sigmako errotodatik autobusez eta 11:00etako Penitentzi ospakizunetan parte harteteko garaiz iritsiko dira. Meza nagusia 12:00etan izango da eta bazkaria 14:00etan Ostatuan. Errosarioa errezatu ostean 17:30etan abiatuko dira etxeruntz.

1945. urtean jaiotako bazkaria

1945. urtean jaiotako elgoibartarrek elkartzeko aukera izango dute datorren maiatzaren 28an, eta Sigma jaiotxean egingo den bazkariarekin ospatuko dute eguna. Bertara joateko interesa daukatenek 60 euro sartu beharko dituzte ondorengo kontu korronte zenbakian maiatzaren 24a baino lehen: 3035 0007 200071034326 (Euskadiko Kutxa)

Bigarren goan ere ezin izan zuten azoka Plaza Handian jari



Elgoibar Bizirik Herri Plataformak azoka Plaza Handian jartzeko bigarren saiakera egin zuen atzo, baina berriz ere Ertzainek eta Udaltzainek ez zieten utzi. Udalak Trenbide kaleko aparkalekuak hustu zituen merkatariren bat hurreratu zen esperantzan baina bakarria etorri omen zen eta honek ere atzera egin zuen.

Plataformako kideek Ertzaintzaren jarrera salatu nahi dute merkadilloari buruzko kartel informatiboak pegatzeagatik kameta eskatu eta identifikatzera behartu zituztelako, "EAJren politika polizialaren adierazgarri da hori".

Era berean, PPko Elgoibarko zinegotzia den Iñigo Arkazuzek babesa eskaini die merkatariei eta elkarizketaren bidea proposatu du.

Inkesta

Frantziako Gobernuak egun bateko soldata eskatu die langileei adinekoei laguntzeko
Prest egongo al zinateke egun bateko soldata zerbaiten alde emateko?

JOSUNE ARTETXE
Tabernaria
50 urte



“Bai, ondo dago baina inor derrigortu gabe. Nik boluntario lanak egiten ditut, eta horrela egiten dut nire aportazioa. Laguntzeko modu asko dago.”

IBAN CENDOYA
Galdaragilea
30 urte



“Egun batekoa bakarririk bada bai. Gobrenuz Kanpoko Erakunderen bati emango nioke, baina dirua non erabili duen justifikatu beharko luke.”

ROBERTO GOROSTEGI
Plastiko-langilea
39 urte



“Bai, ados egongo nintzateke. Nik gosez hiltzen ari den jendeari laguntzeko emango nuke. Langabezian daudentzako ere bai, baina batez ere, gosearen aurka.”

MARI CRUZ RAMAL
Kamareroa
38 urte



“Bai, egun batekoa bai, baina ohitura bihurtu gabe. Nik umeei laguntzeko emango nuke batez ere, umezurtezi, gaixorik edo gosez daudenei laguntzeko.”

[**BAI** ala **EZ?**]

Hasi al zara udako oporrak prestatzen?

BAI %48

“Bai, hasi gara buruari eta interneti bueltak ematen eta uste dut badakigula zer nahi dugun baina oraindik ez daukagu ezer lotuta, beraz, ezin ezer aurreratu.”

EZ %52

“Ez, oraindik ez. Beste gauza askotan bezala, opor kontuetan ere beti azken orduan ibiltzeko ohitura daukat.”

Datorren asterako...

Emango al zenuke zure bizitzaren eta zaletasunen berri interneteko blog edo egunkari horietako batean?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7744 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

IMH Ingeniaritzak txandakatzeko sistema aldatuko du datorren ikasturtean



Duela 9 urte martxan jarri zen IMH Ingeniaritza gaur egun gogoeta estrategikoa egiten ari da, eta ondorioz txandakatzeko sistema aldatuko du: 2005/06 ikasturteko promozio berriko ikasleek asteleheneetik asteazkenera egun osoz egingo dute lan enpresetan eta IMHko eskoletara ostegun eta ostiralean joango dira. Jada martxan dauden kurtsoko ikasleek orain arteko metodologiarekin jarraituko dute, hau da, goizez enpresan eta arratsaldean IMHn.

Helburua

Aldaketa honen helburua egun erdiko lanak enpresan dakarren eritmo-moztea sahiestea eta ikasleek ikastetxera etortzeko leku aldaketan denbora gutxiago behar izatea da. Promozio berriak jardunaldiaren %60a enpresan igaroko du lanaldi partzialeko kontratuarekin eta %40 IMHn ikasten. IMH Ingeniaritzak eskaintzen duen ingeniaritza ikasketak Europako txandakako sisteman oinarrituta daude.

[IKAS KONTUAK]

Ikastolako jaialdia

Ikastolako Haur Hezkuntzako ikasleen kurtso amaierako jaialdia ospatu zen joan zen maiatzaren 13an Ikastolako frontoian. Arratsaldeko 18:30ean hasi zen jaialdia, eta frontoia jendez gainezka zegoen. Ikastolako txikienek, irakasleen laguntzaz aurrez prestatutako lanak antzestu zituzten, kanturako eta dantzarako dituzten doaiak erakutsiz. Umore eta giro onean igaro zuten arratsaldea bertan bildutako guztiek, eta denak irrifartsu atera ziren.



[IRTEERAK]



Herri Eskolakoak Sesiarte mendian

Kalamua Guraso Taldeak antolatuta, Herri Eskolakoak Sesiarte mendira egin zuten irteera joan zen apirilaren 17an. Aittolako aparkalekutik abiatu ziren, eta kurutzea pasatu ostean, mendian gora joan ziren. Eguraldi txarra egin zien bide osoan zehar. Azkenengo mendi irteera maiatzaren 29an egingo dute Malkorra mendira. Irteera honetan 4 mendi edo gehiago egin dituzten 26 umeri opari bat emango zaie.



Elgoibar BHiko ikasleak Venezian

Institutoko Heziketa Zikoetako ikasleek Veneziatik gertu dagoen Vicenza hiriko Liceo Pigafetta-ko ikasleekin elkartrukea egin dute. Astebetez bertako ikasleen etxeetan bizi izan dira eta Vicenza, Padova, Verona eta Venezia ikusteaz gain, bertako Merkataritza Ganbarak antolatutako hitzaldi batean parte hartu zuten. Elgoibarko eta Italiako ikasleek landu beharreko proiektua "Enpresa berrien Sorrera eta Sustapena" da.

MENDAROZABAL AUZOKO TRINITATE JAIK

Ekitaldi desberdinak antolatu dira Mendaroko Trinitate jaietarako

Maiatzaren 21etik 23ra bitartean ospatuko dira Mendarozabal auzoko Trinitate Jaiak. Bihar, larunbata, Trinitate Bezpera Egunean emango zaie jaiari hasiera zuhaitza jaso, kanpai jotze eta txapliguen jaurtiketarekin. Ekitaldi garrantzitsuenak igandean, Trinitate Egunean eta astelehenean izango dira. Trinitate Eguna txistularien kalejirarekin esnatuko da, ondoren Meza Nagusia izango da Trinitateko basilizan, eta eguerdian herri kirolak. Astelehenean, Meza Santua, Ikastolako haurren bertso saioa, trikitaliak eta bazkari eta afari herrikoiak izango dira.

Trinitate Baseliza berrituko dute

Mendaroko Trinitate basiliza herriko eraikuntzarik zaharrena da. 1105. urtean eliza honi buruzko erreferentziaren bat egiten duten dokumentuak aurkitu dira. 1652an obra batzuk egin ziren, eta eliza sarrerako ur bedeinkatuaren ontziak 1663. urteko data dauka. 1981. urtean herriko bizilagunen artean berri zuten basiliza hau. Elizako aldea berria da, eta 2003. urtean kanpaia konpondu zuten. Mendaroko bizilagunek herriko erlijioso guztiak mantendu dituzte, eta oraingoan Trinitate eliza berritzeko proiektua daukate eskuartean.



Udako Euskal Unibertsitatera joateko dirulaguntzak

Mendaroko Udalak Udako Euskal Unibertsitatera joateko dirulaguntzak eskainiko dizkie mendarotarrei. Udako Euskal Unibertsitateak egitarau zabala antolatu du, jakintza desberdinak jorratuz, mintegiak, ikastaroak, praktikak, jardunaldiak eta emanaldiak izango dira. Udalak ikastaroaren matrikula osoa ordaintzeko dirulaguntza emango die beka gisa langabetu eta ikasleei. Informazio gehiago nahi izanez gero, Udaleko Kultura Sailera jo daiteke.

Gaztegunen Bileren maiatzaren 27an

Mendaroko Udalak jakinarazi nahi du Gaztegunen Bileren egunez aldatu dela. Hasieran maiatzaren 25ean egiteko asmoa zegoen, baina azkenean 27an izango da, arratsaldeko 19:00etan.

Genero Indarkeriari buruzko hitzaldia

Lagun Betikoak Jubilatuen Egoitzak antolatuta, Genero Indarkeriari buruzko hitzaldia izango da datorren maiatzaren 25ean, arratsaldeko 15:30ean jubilatuen egoitzan.

Udalaren www.mendaro.net webgunea martxan



Urte hasieran jarri zuen Mendaroko Udalen bere webgunea martxan. Bertan udalareko informazioaz gain, herriarentzako eta herritarrentzako interesgarria den informazioa aurki daiteke. Besteak beste, proiektu desberdinak, herriko elkarten informazioa, ikastaroak eta agenda kulturala. Honetaz gain, Mendaroko Udalen hilean behin kaleratzen duen aldizkaria irakurtzeko aukera ere eskaintzen du.



Beñat Urain Mutrikuko Atxukale Lasterketako irabazle

Joan zen domekan ospatu zen Mutrikuko XIII. Atxukale Txirrindulari lasterketa, eta Beñat Urain mendarorarrak irabazi zuen. 90 kilometroko lasterketa izan zen, eta guztira 63 txirrindularik hartu zuten parte. Beñatek 2 ordu, 25 minutu eta 20 segundu behar izan zituen lasterketa irabazteko.





ENERITZ EPELDE

Trikiti irakaslea

«Bakalao musikarekin ere egin izan ditut trikiti koreografiak»

Eneritz Epelde, 27 urteko azkoitiarra, Trikitixa eta Euskal Dantza irakaslea da Medaron. 30 ikaslek osatutako taldearekin astean behin elkartzen da Arin.arin eta Fandangoaren pausoak irakasteko eta, aitortu digunez, berari euskal dantzekin esperimentatzea gustatzen zaio.

• **Euskal Dantza irakaslea zara lanbidez. Bitxia.**

Kasualitate baten ondorioa izan da. Umetan Euskal Dantzetan apuntatu ninduen amak eta denborarekin utzi egin nuen ez zitzaidalako gustatzen baina, aldiz, oso gustura nenbilen Trikitian. Lehengusu Kimetzekin bikotea egin nuen eta txapelketetan hasi ginen parte hartzen, sariak irabazten eta, gaur arte.

• **Azkoitiko Musikeskolan irakasle, Mendaron, Bidanien, Elorrion...**

Bai, Azkoitiko Musikeskolan hasi nintzen eta poliki-poliki beste lekuetatik ere iritsi zitzaizkidan eskaintzak. Lau urteko haurrei eta hauen gurasoei ere ematen dizkiet klaseak eta, egia esan, ikasle bezala nahiago ditut helduak ze askoz motibazio gehiago dute txikiak baino.

• **Zer behar du trikitalari on batek?**

Ezaugarri asko dira, bikotearekin konplizitatea, eritmoa, indarra... Irribarre egiteko eroso egon behar duzu eta horretarako indarra behar da ze, bestela, aurpegian nekea nabaritzen da.

• **Zuk kirolarekin parekatzen duzu trikitiia.**

Neurri batean bai ze, esaterako txapelketak daudenean, ordu asko aritu behar zara entrenatzen, elikadura zaindu gehiegizko kiloak ez hartzeko, zure kontu korrika egin fonda izateko... Gainontzeko kirolek bezala, honek ere

eskaten du sasoian egotea, batez ere bertatik bizi bazara, noski.

• **Tradizioa eta modernitatea uztartzea gustatzen zaizu, ezta?**

Ni aldekoa naiz, bai. Folkloreak eta tradizioak markatzen dituen oinarrietatik abiatuz, koreografia berriak sortzea gustatzen zait, jolastea, ikuskizun berriak eta erakargarriak sortzea, ohiko janzkeretatik aparte bestelako arropak ere diseinatzea... Nik eraman izan ditut ikasleak Trikiti txapelketetara kaleko arropekin jantzita, eta bakalao musikarekin ere aritu izan naiz trikitian. Halere, normalean euskal musika erabiltzen dut gauza berriak sortzeko: Kepa Junkera, Akelarre... Azkoitin, esaterako, San Juan bezperan, suaren inguruan Akelarrea antolatu izan dugu.

• **Eta ez al dituzu kritikak jaso?**

Zuzenean ez. Alderantziz, uste dut jende askok eskertu egiten duela gauza berriak egin eta ikusteak. Azkoitin, esaterako, hiru talde aritzen dira Euskal Dantzak irakasten, kompetentzia handia dago eta nik, Musika Eskolan, askatasuna dut gauza berriak egin eta probatzeko eta horregatik ere etortzen zaizkit ikasleak.

• **Noiz ikusi ahal izango dugu zure ikuskizun bat?**

Uztailaren 1ean, diploma banaketa egunean, Elgoibarko Institutuan izango naiz Mendaroko eta Azkoitiako ikasleekin.



«Trikitia kirola ere bada, sasoian egon behar duzu ondo aritzeko»



GAZTIA NAIZ

Gazte tertulia...

IKASI ETA LAN EGIN:



GAUR EGUN GERO ETA GAZTE GEHIAGOK TARTEKATZEN DITU IKASKETAK LANAREKIN. ARRAZIOIAK DESBERDINAK DIRA, BAINA HELBURUA BAKARRA: NORBERARENTZAT DIRU APUR BAT IRABAZTEA. HALA ERE, GEHIENENK ARGI DAUKATE GARRANTZITSUENA IKASKETAK DIRELA, ETA LANA DENBORALDI BATERAKO HARTZEN DUTE. GAURKOAN IKASTEN ETA ALDI BEREAN LANEAN ARI DIREN HIRU GAZTE EKARRI DITUGU GURE ARTERA: IOKIN ALTUNA, JULIA FERNANDEZ ETA CYNTHIA PAZMIÑO. BAKOITZAK BERE ESPERIENZA KONTATU DIGU, ETA ASKOK USTE DUTENAREN KONTRA, HIRUKOTE HONEK EZ DU USTE GAUR EGUNGO GAZTEEK DENA EGINDA DAUKATENIK.

Zer ari zarete ikasten?

Iokin: Medikuntza ikasten ari naiz. 2. mailan nago, eta momentuz oso gustura.

Julia: Turismo ikasketen azken txanpan nago, bukatzen ari naiz. Azterketetan nago, eta gero errealida egin beharko dut titulua ateratzeko.

Cynthia: Batxilergo Artistikoa ikasten ari naiz Eibarren. Aurten errepikatzen nago, bi arlo bakarrik ditut eta espero dut aurtengoan dena gainditzea.

Horretaz gain, lanean ari zarete. Zertan?

C.: Lanbroan egiten dut lan kamarera moduan.

I.: Bai. Egia esanda nik lana baino gehiago "hobby" bat kontsideratzen dut. Begirale moduan aritzen naiz Atxutxiamaikan, eta Kiribilka programan.

J.: Orain Decathlon kirol dendan egiten dut lan. Astean 20 ordu sartzen ditut. Hilabete daramat bertan.

Gustuko al duzue lan hori?

J.: Bai. Gogorra da, baina langile gehienak ikasleak gara eta giro oso ona daukagu. Orduz aldetik erraztasunak ematen dizkigute, eta gure artean txandak aldatzeko aukera daukagu.

I.: Bai, lehen esan dudana bezala ez dut guztiz lan bat kontsideratzen. Gauzak ahalik eta ondoen egiten saiatu behar zara, leku guztietan bezala, eta orduren bat ere sartu behar da, baina gustora aritzen naiz.

C.: Gustura nago, bezeroekin harremanetan lan egitea izugarri gustatzen

zait, baina kamareroek ere izaten ditugu egun txarrak eta beti aurpegi ona jarri behar izaten dugu.

Lan hauek aldi baterako bezala ikusten al dituzue?

I.: Bai. Nik ez daukat lotura handirik, eta aukeratu dezaket gutxi gora behera noiz lan egin eta noiz ez.

C.: Bai. Ikasten nagoen bitartean egingo dut lan. Datorren urtean Unibertsitatera joateko asmoa daukat, eta ordu guztiak ikasketei eskaini beharko dizkiet. Beharbada asteburutan egingo dut lan.

J.: Bai. Hiru hilabeterako kontratua egin zidaten, eta gero kanpora joateko asmoa daukat.

Zer da garrantzitsuagoa lana ala ikasketak?

I.: Ikasketak. Ikasteaz aparte lana ere egiten dut, baina ikasi behar ez dudanean.

J.: Ikasketak. Aurreko lauhilekoan beste toki baten egon nintzen lanean, eta astean 30 ordu sartu behar izaten nituen, eta ez zidaten ezertarako erraztasunik ematen. Ez neukan ikasteko denborarik, eta utzi egin nuen.

C.: Ikasketak, hau lan extra bat da.

Zergatik erabaki zenuten lanean hastea?

C.: Nahiago dut nire diru sarrerak edukitzea. Udan hasi nintzen lanean, eta gero jarraitu egin nuen. Baina lantxo txikiak egiten duela lau urte hasi nintzen.

J.: Nire gauzak erosteko dirua nahi nuelako. Adin batetik aurrera etxean dirua eskatzeak lotsa ematen dit.

“Kamareroek beti aurpegi ona jarri behar izaten dugu”

CYNTHIA

BARREN

BATERAGARRIAK?

I.: Batxilergoko lehenengo mailan uda oso luzea eduki nuen, eta zerbait egitea erabaki nuen. Umeen kontuak gustatzen zaizkit, eta aukera ona iruditu zitzaidan. Beharrik ez daukat, baina diru-sarrera extra bat inoiz ez dator gaizki.

“Begirale lana hobby bat da niretzat”

LOKIN

Bizimodua garesti dago lanik egin gabe bizitzeko?

C.: Hala da, baina jendeak ikasten dagoenean ez du lanik egin nahi. Udaran jende asko behar izaten da, eta zaila da jendea bilatzea. Askotan pentsatu izan dut ez naizela ari nire ikasle bizimodua aprobeztatzen.

J.: Bai, gazteontzat bizimodua zaila dago. Nirekin lanean dagoen jende gehiena 28-30 urte bitartekoa da, eta gurasoen etxetik irten ezinda dabilta.

I.: Baietz uste dut, gero eta jende gehiagok egiten du lan ikasteaz gain. Diru piskat ondo etortzen

da. Bizimodua ez dakit garestitu egin den edo ez, baina gero eta gauza gehiago egitea nahi dugu denok eta horretarako dirua behar da.

Askok diote egungo gazteek dena egina dutela. Ados al zaudete?

J.: Batzuk izango dute suerte hori, baina ez da nire kasua. 16 urte nituenetik lanean ari naiz. Ume bat zaintzen hasi nintzen, gero Inglaterara joan nintzen, sukaldari bezala Iriondonean...

I.: Etxean gauden bitartean bai, baina gero eta zailagoa ikusten dut lan bat topatu eta etxetik joatea.

C.: Ni baino gazteagoak direnak beharbada bai, baina nik behintzat ez.

Zer moduz daramazue ikasketak eta lana batera egite hori?

J.: Ondo. Antolatzea da garrantzi-tsuena. Nik ikasketei eman diet lehentasuna. Goizez klasera eta arratsaldean lanera. Eguerdian 2 ordu hartzen nituen eskolako lanak egin eta ikasteko. Hala ere, ez da erraza. Iazko ikasturtea gogorra egin zitzaidan:

Unibertsitatean bekadun bezala ibili nintzen, asteburuetan sorosle lanetan, gero promozio lanak... zoroaren pare, baina horrelakoa naiz, denean sartuta ibiltzea gustatzen zait.

I.: Ondo. Lanen bat egiten edo azterketarako ikasten nagoe-nean denboralditxo batez deskantatzeko aukera ematen dit.




“Ez daukat dena eginda, 16 urterekin hasi nintzen lanean”

JULIA

C.: Ondo. Orain asteburuetan bakarrik egiten dut lan, bestela oso gogorra egiten zitzaidan eta libre neuzkan egunetan ez nuen ikasten.

ROBERTO SANCHEZ IRRATIZALETUA

«Internetek eta segapotoek min handia egin diote irratizaletasunari»



GARE-EILT Irrati Taldeak "Elgoibarko 24 orduko XII. Irrati jardunaldia" ospatuko du maiatzaren 21ean, Karakate menditik. 1991. urte inguruan sortu zen taldea eta 20 kide inguruk osatzen dute. Roberto Sanchez 93an sartu zen taldean. Berak azaldu dizkigu zaletasun honen nondik-norakoak.

🦋 **Zein da 24 orduko jardunaldiaren helburu nagusia?**

24 orduan ahalik eta irradi kontaktu gehien lortzea, hurruneoak badira hobe. Aurten aldaketa batzuk sartu ditugu. Jende falta daukagunez, lo egiteko etenaldia egingo dugu estrainekoz. 2.700 kontaktutik gora lortu izan ditugu, baina orain 500 kontaktura justu xamar iristen gara. Aurten, gainera, DX erako aktibazioak egitea erabaki dugu eta USB alboko bandan transmitituko dugu. Banda honetan errazagoa da nazioarteko kontaktuak egitea. Estatuko eta nazioarteko kontakturik hurrunerarentzat sari bana egongo da eta lortutako kontaktu bakoitzeko QSL edo txartel bat emango dugu.

🦋 **Zer da QSL bat?**

Bi irratizaleren arteko kontaktua egon dela ziurtatzen eta egiaztatzen duen txartel modukoa da. Norberaren datuak eta kontaktuaren ezaugarriak agertzen dira bertan: baldintza klimatikoak, frekuentzia, kontaktuaren gardentasuna, erabilitako ekipo eta potentzia, e.a..

🦋 **Eguraldiak ba al du zerikusirik?**

Ez, berdin dio eguraldi ona edo txarra egin. Benetan garrantzia duena "orban grisa" izeneko fenomeno bat da. Atmosferan dago eta batetik bestera mugitzen da. Orban honen kokapenaren arabera kondizio hobeak edo txar-

ragoak daude irradi uhinen bidezko kontaktuak egiteko.

🦋 **Zertaz berba egiten duzue?**

Normalean eguraldiaz, zer lan kondizio dituzun, ekipo moeta, e.a. Ingelesa erabiltzen dugu hizkuntza gisa, baina irratizale orok ezagutu behar dituen kode internazionalak ere badaude.

🦋 **Zer herrialderekin gustatuko litzazuke kontaktu bat egitea?**

Hong-Kong, Txina edo Kuba bestela. Kuba ia ezinezkoa da, irratia debekaturata baitago eta ezkutuan dabilen norbait izan beharko litzateke. Bestalde, frantsesek eta italiarrekin kontaktua egitea oso erraza da. Geografikoki gertu egoteaz gain, irradi eta antena lantegi gehienak, esaterako, Italian daude. La egunero ateratzen zaizu italiarren bat.

🦋 **Gaur egungo aurrerapide guztiekin; satellite, internet... ez al da zaharkituta geratu irradi bidez komunikatzea?**

Min asko egin diote internet eta telefono mugikorren zabalkundeak gure afizioari. Indar asko galdu du azken urteotan. Internet erabiltzea edo segapotoz deitzea, ordea, ez dituzte hobby gisa hartzen, irratia hartu eta munduko jendearekin kontaktuak egin eta berba egitea, berriz, zaletasun bat da niretzat. Kontaktua bat lortzeko ordu luzez saiatu eta lan asko egin behar da eta internetek edo segapotoek ez daukaten xarma berezia dauka niretzat.

«Eguraldiaz eta gure lan kondizio eta ekipo moeta berba egiten dugu»

TRINITATE JAIK 2005

Bihar, zapatuan, nobedade bezala, Idi probak izango dira



Trinitateetako IV. Azoka Bereziak emango die hasiera aurtengo Trinitate Jaiei zapatu honetan, hilaren 21ean. Leku Eder parkean Elgoibarko baserrietako produktuak izango dira salgai eta Plaza Txikian, beriz, Elgoibarko baserrietan hazitako abereak eta baserrietan ekoiztutako kalitatezko produktuen dastaketa.

Aurtengo nobedadeetako bat Eibarko Alzubarren baserriko idi pareak Nafarroa plazan egingo duen erakustaldia izango da. Inazio Bereziartua Dantza Eskolak ikasturte bukaerako jaialdia ere eskainiko du zapatuan, Haritz Euskal Dantzari Taldearen laguntzarekin. Domekan, beriz, 27 artisauen lanak jarriko dira ikusgai X.

Artisau Ferian. Hauetatik zortzi elgoibartarrak dira: Jose Menbrillera (eskulanak), Antxon Fresnedo (itsas korapiloak), Sabin Oregi (jaiotzak), Martina Alzibar (kakoratz lanak), Carmen Elorza (kakoratz lanak), Garbiñe Osa (lore lehorrak), Domingo Buztiñaga (makilak eta egurrezko maketak) eta Egur Tailerrekoen lanak. Beste berrikuntza bat La Union Elkartek antolatu duen Erakusketa Txakurren Lehiaketa izango da Larraskandako zelaietan, Madarixa eta Lastur artean.

Hauetz gain, Maalako Jai Batzodeak bazkari herrikoa antolatu du 15:00ean hasita, bertsolariak ere izango dira, baita perskusio talde bat ere.

Oskorriren kontzertua gaur gauean Herriko Antzokian

Oskorri taldeak The Pub Ibiltaria 9 diskoaren kontzertua eskainiko du gaur gauean, 22:15etan hasita, Herriko Antzokian. The Pub Ibiltaria 9 disko bikoitza da eta Santo Tomas egunean Bilbaon emandako kontzertuaren grabazioa biltzen du. Lehenengo lana 17 kantuz dago osatuta eta bigarrenak, beriz, abestien bertsioak playbackean biltzen ditu.

Natxo de Felipek diskoaren aurkezpenean esan zuenez, "kantatu eta gozatzeko aukera paregabea" ematen du eta gaur gaueko emanaldian ere hori izango dute helburu, hurreratzen direnek parte hartzea, hain justu.

Izan ere, De Felipek kantu zaharrak berreskuratzearen beharra azpimarratu izan du behin baino gehiagotan, "bestela galdu egingo dira eta pozgarria da jakitea hori ez gertatzeko lanean gaudela". Gaurkoan entzungai eta kantagai izango dira kanta oso zaharrak, nahiko berriak, ezagunak eta ahaztutakoak, dramatikoak eta umoretsuak.





www.clinicarecalde.com

MIOPIA LASER - KATARATA
EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

ELGOIBARKO MENDI ITZULIA

235 lagunek parte hartu zuten mendizaletasun jaiari

Azkenean 235 izan ziren Elgoibarko Mendi Itzulian parte hartzera animatu ziren lagunak joan zen domekan, maiatzaren 15ean. Iaz baino 15 lagun gutxiago, beraz. Hauetatik ia 70 inguruko herrietako mendizaleak izan ziren.

Ibiltzeko giro aparta izan zuten parte hartzaileek eta amaieran Merkatu Plazan egin zuten bazkarian ere, beste era batekoa, baina giro ona nagusitu zen.

Bertan, Balentin Txurruka, Iñaki Beristain eta Jaime Martinez omendu nahi izan zituen Morkaiko Mendizale Elkartek,, eta azken urte hauetan antolakuntzan egindako lanaren eskerretan sukaldeko mantal bana jaso zuten Aitzol Arriola, Elkarteko presidentearen eskutik. Besteak beste, 700 litro ur, 300 freskagarri, 30 litro ardo,



Iñaki Beristain, Balentin Txurruka eta Jaime Martinez omenduak Aitzol Arriolarekin.

20 litro salda, 15 litro kafe, 20 kilo laranja, 20 kilo tomate, 225 yogur eta 60 kilo gixatu banatu zituzten mendizaleen indarrak berreskuratzeko. Morkaikoren

hurrengo irteera maiatzaren 29an izango da. Durangon Ibilaldia ospatzen dela aprobetxatuz, Elgoibartik Durangoraino oinez joango dira mendiz-mendi.

Ondo pasa
Trinitate Jaietan!

Tel. 943 74 44 67

eskilara mekanikoekin
azken fasea salgai

sukia

www.sukia.com

FUTBOL 7

Eskualdeko VIII. Futbol 7 Txapelketa



Elgoibarko eta Eibarko Udal Kirol Patronatuek elkarlanean antolatzen duten Eskualdeko VIII. Futbol 7 Txapelketa ekainean jarriko da abian eta jadanik zabalik dago izena emateko epea. Parte hartzeko asmoa duten taldeek maiatzaren 15etik 27ra bitartean izango dute izena emateko aukera Olaizaga eta

Ipuruia kiroldegietan. Talde bakoitzak 52 euro ordaindu beharko ditu izena ematerakoan.

Interesatuek kontuan izan behar dute taldeen kopuru mugatua dela, 32 ekipotakoa, hain zuzen ere. Bestalde, partidua larunbat goizetan jokatu dira Mintxeta eta Unbeko futbol zelaietan.



Wing Tsun ikastaroa

Elgoibarko Wing-Tsun (Kung-Fu) eskolak antolatuta, Sifu Victor Gutierrez maisu handiak ikastaroa eskainiko du maiatzaren 26an, eguenean, Olaizaga kiroldegian. Espainiarako eta Portugalerako Wing-Tsun delegatua izateaz gain, munduko maisu onenetakoa ere bada eta honakoa, Elgoibar bisitatzen duen bigarren aldia izango da. Ikastaroaz gain, Pello Plaza irakasle elgoibartarraren 30 ikasleak aztertuko ditu eta erakustaldi bat ere eskainiko du. Ateak zabalik egongo dira erakustaldia bertatik jarraitu nahi duen edonorentzat.

Elgoibarko Hiria Txirindulari Saria domekan

Domeka honetan, maiatzaren 22an, jokatu da XXV. Elgoibarko Hiria Saria txirindulari proba Elgoibarren. Jubenil mailako txirindularientzat izango da eta goizeko 10:00etan abiatuko dita txirindulariak Plaza Handitik.

86 kilometroko luzera izango du

lasterketak eta Santa Klaran kokatuta egongo da helmuga. Hau ez da Elgoibarko lagun Taldeak antolatuko duen proba bakarra izango, datorren maiatzaren 29an, domekan baita ere, kadete mailako txirindularientzako lasterketa ospatuko baita.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Haundi 1 - Basconia 4 (3. maila)
 Elgoibar 0 - A, Ondarroa 1 (1. erreg.)
Romo 2 - Elgoibar 0 (Jub.)
 Touring 1 - Elgoibar 2 (Kad.)
 Lagun Onak 4 - Elgoibar 0 (Inf A)
 Hemani 3 - Elgoibar 1 (Inf. B)
 Groseko 4 - Elgoibar 1 (Neskak)

ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. 4 - Allerru Bekoerota 5 (Nazional B)
 Oriko Tabernak 6 - Lanbroa 2 (1. maila)

PILOTA

Debarroko Txapelketa

Lagunak A 2 - Aretxabaleta 22 (Nag.)
 Lagunak B 22 - Eibar 6 (Nag.)
 Lagunak 22 - Bergara 6 (Jub.)

Udaberri Txapelketa

Lagunak 18 - Lazkao 5 (Inf.)

ESKUBALOIA

Donibane 25 - Umobitza Sanlo 21 (Kad. mut.)
 Zarautz 25 - Pagoaga Sanlo 19 (Kad. nesk.)
 Cometel Sanlo 19 - Aloña 20 (Jub. nesk.)
 Tecnomeca Sanlo 32 - Arrasate 9 (Kad. mut.)
 Sanlo 30 - Leizaran 11 (Sen. nesk.)
 ANIT Softlan Sanlo 30 - Legazpia 28 (Sen. mut.)
 Arrate 26 - Tecnifuelle 22 (Sen. mut.)

[AGENDA]

FUTBOLA, Mintxetan

Zapatua, 14

10:00 Elgoibar - Hondarribia (Aleb.)
 12:00 Elgoibar - Mutriku (Kad.)
 15:15 Elgoibar - Añorga (Inf A.)
 17:00 Elgoibar - Romo (Jub.)
 19:00 Elgoibar - Salvatierra (Neskak)

ARETO FUTBOLA Kiroldegian

Domekia, 22

12:00 Lanbroa. - Denak Taberna (1. maila)

ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapatua, 21

10:00 Umobitza Sanlo - Zarautz (Kad. mut.)
 12:00 Tecnifuelle Sanlo - Zarautz (Kad. nesk.)
 16:00 Pagoaga Sanlo - Leizaran (Senior mut.)

Merkatua

OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

[LANA]

ESKAERA

- † Soldadorea lanerako prest. ☎ 696 79 41 07
- † Zaintzailea nagusiak zaintzeko prest. 10 urteko esperientzia eta informeak. ☎ 685 729 790
- † Mutila nagusiak zaindu, txofer, edo igeltserritza lanerarako prest. ☎ 670 25 78 04
- † 19 urteko neska asteburuetan tabernan edo jatetxean lan egiteko prest. ☎ 943 53 11 15
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanerarako prest: elkartek, portalak, tabernak, etxeak... ☎ 695 708 028/943 531868
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanerarako prest: elkartek, portalak, tabernak, etxeak... ☎ 646 235 195
- † Mendaroko emakumea jantzi konponketak egin edo etxeko lanerarako prest. ☎ 943 03 36 05
- † Emakumea garbiketa lanerarako prest: elkartek, portalak, tabernak... ☎ 699 609 190
- † Emakumea ospitalean gaixoak zaintzeko prest, gauzez edo goizez. ☎ 943 17 28 96 (Mertxe)
- † Mutila enkofratzaile edo 2. mailako igeltsero moduan lan egiteko prest. ☎ 943 17 28 96 (Jesus)
- † Mutila garbiketa, peoi, igeltserritza, obra edo pinturan lan egiteko prest. ☎ 638 716 987 (Anjel)

- † Bi neska gazte lanerako prest. ☎ 605 74 03 13
 - † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanerarako prest: elkartek, portalak, tabernak... ☎ 686 578 228
 - † Emakumea (hemengoa) ospitalean gaixoak zaintzeko prest. Orduka, eta gauzez. Esperientzia daukat. ☎ 943 53 17 45 (gauzez)
- ### ESKAITZA
- † Euskal Bizikleta txirindulari probarako azafatak behar dira. Ekaineko hasieran, kotxea ezinbestekoa. Ordaindua. ☎ 607 71 38 37 (Antonio)
 - † Pertsona euskalduna behar da astean zehar barran lan egiteko. ☎ 670 65 49 21
 - † Kamareroa behar da. ☎ 649 96 38 92
 - † Sukaldari laguntzailea behar da. ☎ 943 74 10 12
 - † Iturgina behar da Elgoibarren. ☎ 650 586 144

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- † Etxea salgai Santa Ana kalean. 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Igogailuarekin. ☎ 943 74 26 14
- † Etxea salgai San Roken. Sukaldia, 3 logela, egongela, 2 komun, trasteroa, 2 balkoi eta ganbara. Garajea aukeran. ☎ 943 74 88 53
- † Etxea salgai Santa Klaran. 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Dena berritua. ☎ 943 74 18 83 (Ignacio)
- † Etxea salgai Basarten. 75m² Dena kanpora. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldia, garajea. ☎ 652 70 99 15
- † Etxea salgai Ubitarten. 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Altzari eta ganbararekin. Berritua. ☎ 652716724

- † Etxea salgai Mendaron. 77m² Bizitzera sartzeko moduan, dena kanpora. ☎ 659 71 57 22

ALOKAIRUA

- † Apartamentua alokatzen da Mallorkan. ☎ 645 82 93 45 (Aitor)
- † Pisual alokatzen dut Donostian udan. Ondarretatik 10 minutura. 2 logela. ☎ 943 377 292 (21:30-22:30)
- † Emakume batek bere etxean beste emakume bat hartuko luke alokairuan. Gela komunarekin, eta sukaldia. ☎ 943 74 16 71
- † Etxea dut Jakan igerileku eta kirol gunean. Astebete trukatu nuke abuztuan mediterraneoan etxea duen norbaitek. ☎ 6657460 62 (Maite)
- † Etxea alokatzen da Jausoro Plazan. 2 logela, komuna, egongela, sukaldia bal-koiarekin. ☎ 943 74 23 22
- † Pisua konpartitzeko pertsona bat behar da. ☎ 610 45 85 52
- † Benidorm-en apartamentua alokatzen da. ☎ 943 74 06 28 (gauzez)
- † Etxea alokatzen da Zarautzen. Uda, asteburuak, zubiak... Hondartzatik gertu. ☎ 685 71 84 54
- † Pisua hartuko nuke alokairuan edo konpartituko nuke. ☎ 605 74 69 09
- † Logela behar dut. Lo egin eta erropak garbitzeko. ☎ 943 74 42 92 (Felipe)
- † Logela hartuko nuke alokairuan. ☎ 615 00 83 46

[GARAJEAK]

- † Garajea salgai Ermuaranbiden. ☎ 943 74 35 78
- † Garajea salgai Urasandin. ☎ 943 74 07 26 (21:00-22:00)
- † Garajea salgai Pista Beltzean. ☎ 943 74 27 78

[SALEROSKETAK]

- † Zaldiak salgai. ☎ 670 23 52 54
- † Hyundai Coupe autoa salgai. SS-3755AX ☎ 943 74 24 26
- † Colnago Dream bizikleta koadroa salgai. ☎ 620 27 61 28
- † Bikientzako kotxe-silla salgai. Inglesina markakoa. ☎ 636 12 95 43
- † Andregai soinekoa eta konplementoak salgai. Marfil kolorekoa. 42-44 taila. 480 euro. ☎ 943 08 00 81/615726430
- † Konika argazki kamera digitala salgai. 2.1mp. Guxi erabilia. 100 euro. ☎ 661426077 (19:00etatik aurrera)
- † Logelarako altzarik salgai. 90Zm-ko bi ohe eta armairua. Prezio ona. ☎ 676 61 70 55/659 79 06 72
- † Elikagai denda salgai jubilaioagatik. Arregitore 8, beheka. ☎ 943 74 30 91
- † Haur sehaska salgai. Oso polita. ☎ 943 74 16 19
- † Bigaren eskuko motorra erosiko nuke. ☎ 661 22 51 49
- † 90Zm.ko somierra salgai. Berria, lami-naduna. 50 euro. ☎ 943 53 17 45

[BESTERIK]

- † Urasandin lepoko beltza galdu dut. ☎ 943 74 45 43
- † Arrilaga kalean poltsa galdu nuen ume jantziekin. ☎ 943 74 14 52
- † Urte eta erdiko Setter ingeles emea oparitzen dut. ☎ 650 22 33 28 (18:00etatik aurrera)
- † Eguzkitakoak galdu ditut Mendaron. Emakumezkoak, granateak, graduatuak. ☎ 657 722 836 (Leire)
- † Gozotegi-kafetegia traspasatzen da Elgoibarren. ☎ 943 74 28 75
- † Taberna alokatzen da. Sukaldia eta jangela ditu. ☎ 637 43 82 45
- ☎ 943 74 03 92 (goizez)



TERAPIA FAMILIARRA
(bikote eta banakako terapia)

PSIKOLOGIA

CHARREMAN ARAZOAK: bikotesarekin, familiarrekin edo kideekin

UMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK

ANTSIAKETA

DEPRESIOA

ESTRESA

ELIKADURA ARAZOAK

AUTOESTIMA

iritziaren erantzulea: 675 61 78 55 | AURKIDU ERREKIBO: 415 70 57 25 | USTAZIEN KALEA-1.

Malape taberna

Orain astegunetan



San Frantzisko, 60



Bulkatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Karpo eta banako estaliturak
Zaluzen kolokazioak
Lakadak: egur, aluminio, P.V.C.
Pinturak orokortu

San Roke, 7 beheka
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 740 570



[ZORIONAK]



‡ Zure 2. urtebetetze egunean egun zoragarri bat igaro dezazula! Ikastolako laguntxoak. Zorionak eta ongi pasa eguna!




‡ Maiatzaren 20an 5 urte beteko dituen **Marcosi** zorionak. Familiako guztien eta batez ere, Asierren partez.



‡ Zorionak **Sara** hilaren 21ean 8 urte egingo dituzulako. Etxekoan partez.



‡ Zorionak maiatzaren 5ean 10 urte egin zenituelako. Etxeko guztien partez.



‡ Zorionak **etxeko printze txikiari** astelehenean 4 urte egin zituelako. Etxekoan partez.



‡ Zorionak **June Rodrigo** hilaren 13an 2 urte egin zenituelako. Gurasoen eta amamaren partez.



‡ Zorionak **Ander Nogales** maiatzaren 22an urteak beteko dituzulako. Familiakoan partez.



‡ Zu... gazte sentimental, zuk... 17 urte!



‡ Zorionak **Unai** atzo 7 urte bete zenituelako. Etxekoan partez.



‡ Zorionak **Nahia** hilaren 25ean urtebete egingo duzulako. Aita, ama eta etxeko guztien partez.




‡ Zorionak **J.M. Aizpurua** 46. urtebetetzean. Maite zaituztenen, eta batez ere, emaztearen, Miriamen eta Ainararen partez.



‡ Zorionak **Iker** zure 9. urtebetetzean. Gurasoen eta Aitorren partez.



‡ Zorionak **Elsa** hilaren 23an 6 urte egingo dituzulako. Familiakoan partez.



‡ Larunbatean dantza, igandean tanborrada eta astelehenean 8 tirakada belarritik. Ondo pasa!



‡ Zorionak **Leire** zure 4. urtebetetzean. Etxekoan eta bereziki, Beñaten partez.



‡ Hemen daude 2003 eta 2004ko garraioi txapeldu-nak. Ea aurten nork irabazten duen txapela!



‡ Zorionak eta muxu bana **Asceni** eta **Ireneri** zuen urtebetzeziengatik, etxeko gizona zuen partetik.



‡ Zorionak **Jesus Mari eta Santia** zuen 5. ezkontza urteurrenean.



‡ Zorionak **Noemi eta Judit** hilaren 17an eta 24an zuen eguna delako. Familiakoan partez.



‡ Zorionak **Lorea** eta **Iñigo!** Egun ona pasa dezazula. Etxekoan eta koadrilakoan partez.



‡ Zorionak **Claudio** eta **Tomasa** zuen urrezko ezteietan. Anai-arreba eta iloben partez.



‡ Zorionak **Ainhoa** eta **Carlota** zuen 10. eta 6. urtebetetzean. Gurasoen eta etxeko guztien partez.

[OKINDEGIA]



22 igandea IBARRENEA



[FARMAZIAK]

	EGUNEZ	GAUEZ	KANPOKO FARMAZIAK
20	Bidasolo	Bidasolo	IBAÑEZ
21	Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria	Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
22	Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria	FERNANDEZ Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
23	Fernandez	Fernandez	ZABALETA Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
24	Yudego	Yudego	
25	Zabaleta	Zabaleta	
26	Etxeberria (Errosario)	Etxeberria	
27	Ibañez	Ibañez	



[TELEFONOAK]

OSASUNA	BESTELAKOAK
Anbulatorioa 943 03 26 10	BARREN astekaria 943 74 41 12
Larrialdiak 943 46 11 11	Elgoibarko Izarra 943 74 16 26
Planning-a 943 74 29 50	Kirolegia 943 74 44 15
Alkoholiko Anonimoak 943 74 03 85	Kontsumo Bulegoa 943 74 30 88
D.Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22	Liburutegia 943 74 35 25
Gurutze Gorria 943 74 38 64	Musika Eskola 943 74 21 45
Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00	Mintxeta 943 74 43 15
Odol Emailak 943 74 39 36	Parrokia 943 74 08 42
	Postetxea 943 74 15 47
	Gasite Informazioa 943 74 14 61
	KZ gunea 943 74 88 28
UDALA	ADINEKOEN ETXEA
Euskara Zerbitzua 943 74 43 66	San Lazaro Egoitza 943 74 02 96
Kultura Zerbitzua 943 74 21 58	Zaharren Biltokia 943 74 05 26
Hirigintza 943 74 43 84	Eguneko Zentroa 943 74 45 65
Epaitegia 943 74 16 30	
Haziena 943 74 44 14	IKASTETXEA
Mendaroko Udala 943 03 32 82	Haur Eskola 943 74 21 41
Ongizate zerbitzua 943 74 10 08	HHI (EPA) 943 74 08 80
Udaletxea 943 74 10 50	Herri Eskola 943 74 08 79
Udaltzaingoa 943 74 13 94	I.M.H. 943 74 41 32
Debemen 943 74 40 67	Institutua • Arreiturre 943 74 80 19
	•Ezenarro (Meka) 943 74 80 19
	Ikastola 943 74 44 41
	Pilar Ikastetxea 943 74 13 31
GARRAIOAK	
Eusko Trenbideak 943 74 04 42	
PESA (Eibar) 902 10 12 10	
Taxi geltokia 943 74 08 98	
Bizkaibus 902 222 265	

[20 BARIKAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

22:00 ZINE FORUM-A

Hizlaria: Eskame Iarrinaga
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

22:15 "THE PUB IBILTARIA 9"

Taldea: Oskorri
Herriko Antzokian

15:00 BAZKARI HERRIKOIA, BERTSOLARIAK ETA PERKUSIO TALDEA

Maalan
Antolatzailea: Maalako Jai Batzordea

17:30 I. BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN JAIALDIA

Udal Txistulari eta Haritz EDTren laguntzaz
Plaza Handian (euria izanez gero, Kirolegian)

19:00 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA

Elgoibarko Dultzaineroekin batera

20:00 ITXAROPENA

ABESBATZAREN KONTZERTUA

Plaza Handian

23:00 NAGUSIEN TANBORRADA

Udal Musika Bandak lagunduta

[22 DOMEKIA]

09:00 DIANA UDAL TXISTULARI TALDEAREKIN

09:00 ERAKUSKETA TXAKURREN LEHIAKETA

Larraskandan (Madarixa eta Lastur artean)

10:30 X. ARTISAU FERIA

Leku Eder parkean

11:00 MEZA NAGUSIA

Parrokiako Abesbatzaren laguntza San Bartolome parrokiari

SINOPSISIAK

«El Hundimiento»



12:00 HAURREN TANBORRADA IKUSGARRIA

Musika Eskolako Bandaren laguntzaz

Antolatzailea: EMUDAFEK

19:00 LAJA TALDEAREN DANTZALDIA

Plaza Handian

[24 MARTITZENA]

19:30 I. BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAKO KURTZO BUKAERAKO KONTZERTUA

Musika Eskolako auditorioan

[25 EGUAZTENA]

19:00 GAZTEGUNE BILERA IREKIA MENDARON

Udaletxean

19:30 I. BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAKO KURTZO BUKAERAKO KONTZERTUA

Musika Eskolako auditorioan

[26 EGUENA]

19:30 I. BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAKO KURTZO BUKAERAKO KONTZERTUA

Musika Eskolako auditorioan

[27 BARIXAKUA]

19:00 ESKUZ TALDEKO IKASLEEN LANEN ERAKUSKETA

Armairuen zaharberritzea

Kultur Etxeko erakusketa gelan

Ekainaren 8ra arte

19:00 PILARREKO DBH-KO IKASLEEN AGUR FESTA

Pilar Ikastetxean

19:30 I. BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAKO KURTZO BUKAERAKO KONTZERTUA

Herriko Antzokian

22:30 KONTZERTUA

"Sotoko Hotsak"

Taldea: "Tzesne vs Paralux"

Kultur Etxeko sotoan

Antolatzailea: Sinuose

Sarrera: 3 euro

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«El Hundimiento»

21, zapatua: 19:30-22:15

22, domekia: 19:30-22:15

23, astelehena: 22:15

«Las Tortugas tambien vuelan»

24, martitzena: 22:15

26, eguena: 22:15

«El secreto de Vera Drake» (Z.K.)

25, eguaztena: 22:15

27, barixakua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Star wars III»

20, barixakua: 19:30-22:15

21, zapatua: 17:00-19:45-22:30

22, domekia: 17:00-19:45-22:30

23, astelehena: 19:30-22:15

24, martitzena: 19:30-22:15

25, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«La interprete»

20, barixakua: 19:30-22:15

21, zapatua: 17:00-19:45-22:30

22, domekia: 17:00-19:45-22:30

23, astelehena: 19:30-22:15

24, martitzena: 19:30-22:15

25, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

«Las tortugas tambien vuelan» (Z.K.)

Zuzendaria: Olivier Hirschbiegel.

Antzezleak: Bruno Ganz, Alexandra Maria Lara, Corinna Harfouch..

Berlin, 1945. urtea. Herrialde bat hondoratzeko zorian dago. Borroka odoltsuak dira nagusi hiriburuko kaleetan eta Hitler eta bere gertuko lagunak Fuhreraren bunkerrean babestu dira. Hauen artean, Traudl Junge, Hitlerren idazkari pertsonala. Berlinek ezin dio erasoari gehiago eutsi, baina Fuhrerrek ez du hiria utzi nahi. Bere azken agurra antolatzen dihardu Hitlerrek. Elkarrekin bere buruaz beste egin baino ordu batzuk lehenago Eva Braunekin ezkonduko da.



Zuzendaria: Bahman Ghobadi

Antzezleak: Soran Ebrahim, Avaz Latif, Hirsh Feysal.

Herri kurdu txiki bateko haurrek gerraoste latza bizi dute; heriotza, tragedia, itxaropenik eza, miseria gorria. Haurrak minak indargabetzen hasiko dira bizirauteko. Askori falta zaie gorputzeko atal bat edo beste saiakeran huts egin ostean, baina hala eta guztiz ere, itxaropenez betetako izpiritua dir-dir egiten du. 2004ko Donostiako Zinemaldian filmerik onenari ematen zaion Urrezko Maskorra irabazi zuen.

Atzera begira



1965. urteko erretratu zahar hau **Victor Arrietak** laga digu. Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta Mendi Eguna ospatu zen egun honetan. Argazki honetan Morkaiko Mendizale Elkarteako bazkideak ageri zaizkigu, Morkaiko mendiko gurutze azpian. Garai hartan mendi honetara joateko ohitura handia zegoen. Gogoratu dezagun zeintzuk diren argazkian ageri direnak. Asko dira, eta saiatu garen arren, ezin izan dugu denen izena aurkitu, baina seguruenik norberak bere burua ezagutuko du.

Goian zutik, ezkerretik eskumara: **Victor Arrieta, Xabier Mendizabal, M^a Isabel Arakistain (lehendakari ohia), Iñaki Elustondo** eta **Jose Mari Armendariz**.

Bigarren ilaran, ezkerretik eskumara: **Luis Arrieta, Antonio Marmol, Iñaki Larrañaga, Felix Etxeberria, Primitivo Martinez (t), Juan Vikondoa, Jon Arrieta, Jose Mari Gurrutxaga** eta **Javier Zabaleta**.

Hirugarren ilaran, ezkerretik eskumara: **Margarita Kastrillejo, M^a Feli Agirregomezkorta, ezezaguna, Miren Amaia Arrieta, Nekane Etxeberria, Valentin Martinez** eta **Pello Iglesias**.

Laugarren ilaran, ezkerretik eskumara: **Xabier Arrieta, Miren Arrate Arrieta, Ione Garcia, Asier Etxeberria, ezezaguna, Xabier Etxeberria, ezezaguna** eta **Jesus Vicente Berasaluze**.



ESKERTZA

2005eko maiatzaren 12an hil zen
Tomasa Altuna Arizmendiren
seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



nolako ikasketak halako lana



GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATEko Campusa

Lehen zikloa

- Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa (Telematika eta Telekomunikazio Sistemak).

Bigarren zikloa

- Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
- Informatikan Ingeniaritza.
- Industri Ingeniaritza.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza.

GOIERRIko Campusa

Lehen zikloa

- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

JARDUNALDI IREKIAK

ARRASATEko Campusa

943 71 21 92

- 2. zikloa: maiatzak 26, 17:30etan.
- Biteri Ikastetxe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OÑATIko Campusa

Lehen zikloa

- Zuzendari Idazkaritza.

Ziklo luzea

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura.
 - Finantza Zuzendaritza.
 - Merkataritza Zuzendaritza.
 - Erakundeen Kudeaketa.

BIDASOko Campusa

- Enpresa Zientzietan Diplomatura.
 - Nazioarteko Merkataritza.
 - Enpresa Logistika eta Garraioa.

JARDUNALDI IREKIAK

OÑATIko Campusa

943 71 80 09

- maiatzak 12, 18:00etan.

BIDASOko Campusa

943 63 91 29

- maiatzak 7, 10:00etatik 13:00etara.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZAKo Campusa

Lehen zikloa

- Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
- Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
- Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea.
- Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.

Bigarren zikloa

- Psikopedagogian Lizentziatura.
 - Hizkuntzen Psikopedagogia.
 - Esku-hartze Psikopedagogikoa.

Ziklo luzea

- Giza Zientziak Lizentziatura.
 - Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
 - Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.

JARDUNALDI IREKIAK

ESKORIATZAKo Campusa

943 71 41 57

- maiatzak 19, 18:00etan.

inskripzio epea
zabalik

Trinitateak

2005

*Ondo
pasa
jaiak!*

*Zorionak
elgoibartar guztioi
Udalaren izenean*



KULTURA GARAIA



EUSKO JAURLARITZA